

Txiikittu

2014ko azaroa

147 zbk.



San Andresak
ate joka

txistek bitxikeriak sukalden denbopasak eskulanak




- ★ - Ama! Bi notizia dauzkat zuretzat, bat ona eta beste bat txarra. Lehenengoa oso ona: Matematikan 10 ateratu dut.
 - Oso ongi, oso ongi. Eta zein da bigarren notizia?
 - Ba lehenengo notizia gezurra dela.
- ★ - Ama, Ama! Termometroa jaitxi da.
 - Zenbat jaitxi da, seme?
 - Erabat ama, lurrera erori da eta.
- ★ Gizon batek galdetzen dio Jaimitori:
 - Zenbat urte uste duzue dauzkatela?
 - Barkatu gizon, baina nik ehun arte bakarrik dakit kontaktzen.
- ★ Oihan batean Tarzanek sagu bati:
 - Hain txikia eta bigotearekin!
 - Zu berriz, handia eta pardelarekin.
- ★ Kamareroak mutilari:
 - Nola aurkitu duzue xerra?
 - Oso erraz! Pataten azpian.
- ★ - Zer egiten du "Bic bolígrafo" batek leihotik botatzen baduzu?
 - Aerobic-a.
- ★ Jaimito eskolatik etorri zenean bere amak esan zion:
 - Zenbat atara duzue?
 - Polo Nortean bezala. Zero azpitik, ama, zero azpitik.
- ★ Andereñoek galdetzen dio ikasle bati:
 - Nola banatuko zenituzke 5 patata 10 lagunentzako?
 - Oso erraz! Pura eginda!



- ★ Inspektore bat baserri batera doa behiak nola dauden ikustera.
 - Dena oso ondo baina zer ematen zien jateko galdetu zion jabeari.
 - Nik lastoa eta belarra.
 - Eta inspektoreak:
 - Oso txarto! Isuna!
 - Hurrengo egun batean, berdina galdetu zion eta erantzun zion:
 - Nik lehenengo paella, gero oilaskoa eta postrea flana.
 - Oso txarto! Isuna!
 - Beste batean ere berdina galdetzen dio eta erantzuna:
 - A! Nik bost euro bana nahi dutena erosteko!
- ★ Telefonoz:
 - Aizu, eroetxea al da?
 - Ez jauna, konfunditu egin zara. Guk ez daukagu telefonorik.

Denborapasak

*Lotu zenbakiak segidan eta
izudi polita agertuko zaizu*



Izaz Uicuña

HIZKI-ZOPA


- *Enasa
- *Kukua
- *Usa
- *Arrosa
- *Hontea
- *Okila
- *Zozoa
- *Galeperra

G	A	L	E	P	E	R	R	A	Q	S	Y	A
Z	P	U	H	O	W	T	U	H	R	X	O	Y
A	K	I	U	L	I	Y	O	S	W	E	O	L
G	U	J	A	N	E	A	N	T	O	A	L	J
I	K	L	U	S	I	N	I	E	T	A	K	L
K	U	B	A	E	N	A	R	A	P	R	O	N
K	A	C	L	Y	W	I	B	L	I	R	I	A
T	X	A	I	P	E	L	O	A	S	A	R	I
U	A	T	K	X	I	T	X	A	M	N	I	L
J	L	H	O	N	T	E	A	W	G	O	O	E
J	I	L	N	T	Z	O	N	A	L	A	T	I

TXORI MOTAK

*Urko Martinez
Joanes Lazaroaster*

Lehiaketa



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Erantzun mordoa jaso genituen, eta zozketa egin eta gero, irabazlea **Lucas Salazar** izan zen. Argazkian ikusten duzue saria jasotzen. Zorionak!




Kaixo lagunok!

Hemen duzue hilabete honetako lehiaketa.

Bete ondoren, ekarri erantzuna ... eta kitto! Euskara Elkartera (Urkizu 11, solairuartera), azaroaren 28a baino lehen. Liburu polita zozketatuko dugu.

Ez ahaztu datuak jartzea (izen-abizenak eta telefonoa).



Izen-abizena

AdinaTel.....

Denborapasak

ANEREN ISTORIO HARRIGARRIA



San Andresak ospatzeko prest?

Azaroak 30

Erspaldiko kontuak

✓ Lehen, San Andres egunean, lana egiten zen.

✓ 1948an, gerra ostean, hasi ziran San Andres egunean Tanborrada ospatzen; hasieran Ego-Gain eta Kerizpe soziedadeek antolatzen zuten Tanborrada.

✓ 60. hamarkadan Alperrak soziedadeek indar handia eman zion Tanborradari.

✓ Tanborrada amaitzerakoan senar-emazte eta bikoteek Astelena Frontoian afari bat egiten zuten berbena eta guzti. Hortik dator San Andresetan afaria egiteko ohitura.

✓ Ohizkoa da elgoibartarrek eibartarroi esatea guk lapurtu egin geniela San Andres, eta hau belaunaldiz belaunaldi pasa den zerbait da. Kasu honetan horrela erantzuten du eibartarrak: "Ez, zeuek saldu egin duzue San Andres eibartarrek eman dizueten urdai-azpikuaren truke".

Aburtengo San Andresak

9:30etatik aurrera
XXXVI. SAN ANDRES NEKAZAL
AZOKA eta GANADU
ERAKUSKETA.

12:00etan
- NARBAIZA ETA GORROTXATEGI
BERTSOLARIEN ETA JAINAGA
ETA NARBAIZA TRIKITILARIEN
EMANALDIA ETA JUAN
BAUTISTA GISASOLA MUSIKA
ESKOLAKO TRIKITILARIEN
KALEJIRA.
- BIKOTEKA AIZKOLARIEN
TXAPELKETA ERREBALEN.

12:30etan
PLAZARA DANTZARA
ERROMERIA KEZKA DANTZA
TALDEAREN ESKUTIK.

13:00ean
SAN ANDRES AZOKA, PINTXO
TXAPELKETA ETA KARTELEN
SARI BANAKETA.



Ba al dakizu egunero fruitu eta barazki freskoak jaten badituzu askoz ere gaixotasun gutxiago izango dituzula?

San Andres Azokan Eibar eta inguruko baserritarren produktuak ikusteko eta erosteko aukera izango duzue. Ondo pasa!!





IZENA	Julian
ABIZENA	Iantzi
OGIBIDEA	Telebistako aurkezlea
JAIOTERRIA	Woodlan, Kalifornia
JAIOTEGUNA	Azaroak 4

**Itsasoa ala mendia?**

Mendia kirola egiteko, itsasoa lasai ibiltzeko.

Gozoa ala gazia?

Biak gustuko baina gozo guztiak ez ditut jaten.

Uda ala negua?

Uda.

Umetan gehien gustatzen zitzaizun ikasgaia? Eta gutxien?

Gehien kirola, gutxien matematikak.

Kolore bat?

Urdina.

Kirol bat?

Mountain bike, pala.

Animaliarik etxean bai?

Ez, gustuko ditut baina ez naiz apenas etxean egoten.

Txistek kontatu ala entzun?

Errazago entzutea kontatzea baino.

Birziklatzen duzu?

Bai, dena. Oso garrantzitsua da!

Telebistako saio bat?

“Conquistador del fin del mundo” eta “5 baietz”.

Pelikula bat?

Akzio eta kirolezkoak.

Egun pefektua?

Egun lasai bat, etxeko sofan, siesta, kirol pixka bat, familiarekin paseatu, terraza batean kafetxo bat hartu...

Nola dago mundua?

Oso gaizki, eta erremediorik ez diot ikusten.

Zerk haserretzen zaitu?

Gezurak eta soberbiak.

Zerk poztu?

Alaitasunak, nire jendea pozik ikusteak.

Oporretarako leku bat?

Nire etxeko sofa. Urte osoa pasatzen dut bidaiatzen.

Euskara osasuntsu al dago?

Gero eta hobeto, baina asko dago hobetzeko, tamalez. Ezagutza hobetu da baina erabilera ez.

Zer egin euskara bultzatzeko?

Beldurrik gabe berba egin, erabili, euskeraz jarduteko ohitura landu.

Opariak jaso ala egin?

Egiteko nahikoa komedia pentsatzen, jaso nahiago.

JULIAN
IANTZI

Kalifornian jaio zen. Han urte batzuk bizi ondoren Lesakara itzuli zen, gurasoak hangoak ditu-eta. 2001. urteaz geroztik, aurpegi ezaguna da Euskal Telebistan. Hainbat saio aurkeztu ditu, besteak beste “Basetxea”, “Bergia gose” edota “Sorginen Laratza”, eta azkeneko urteetan, oso ezaguna egin da “El conquistador del fin del mundo” saioa aurkezteagatik.



ALDATZE ikastetxeko 6. mailako ikasleak Liburutegian egon dira, bertako Asierren laguntzaz liburutegiko funtzionamendua ikasten. Arratera txangoa ere egin dugu; Eskolabarriko lagunak gonbidatu genituen eta egun zoragarria pasatu genuen. Enma Ocamicak bisitatu gintuen, gure inguruneko gaiarekin lotuta zegoen Alzheimerrari buruzko argitasunak emateko. Eskerrik asko!

URKIZU ikastetxeko 1. eta 2. zikloko ikasleek Kontsumo Tailerrak izan dituzte. Gaztañerre eguna ospatu genuen azaroaren 10ean, 2. zikloko ikasleak Madariaga Dorretxean (Busturia) izan dira eta 5. mailako ikasleak Arotz Eneara joan dira.

ARRATEKO ANDRA MARI ikastetxeko 2. eta 3. ziklokoak Baratze eta Arotz Eneako barnetegira joan ziren, eta zoragarri pasatu zuten! Eibarko Liburutegia ere bisitatu dugu, bertako funtzionamendua ezagutzeko, eta urriaren amaieran, 1., 3. eta 5. mailako ikasleek Baikarako tailerrak egin dituzte. HH-ko 4 eta 5 urtekoek Oñatiko irteera pedagogikoa izan zuten. Gaztañerre eguna ere opatu dugu, eta azaroaren 28an San Andres azoka izango dugu. Horrez gain, 4. mailako ikasleak Guggenheim-eko "Artea ikasbide" proiektuan parte hartzen hasi dira. Gurera, astelehenero, artista bat etortzen da, gurekin lan egitera.



SAN ANDRES ikastetxeko 4. mailakoak 3 egunetan Sastarrainen egon dira. Oso ondo pasa dute, zaldiz ibili dira; Ekaineko kobazuloa ikusi eta beste hainbat ekintza ere egin dituzte. Ziklo desberdinetara ipuin-kontalaria etorri da ingelesez egokitutako ipuin bat kontatzera eta oso esperientzia ona izan da.

LA SALLEKO 5 urteko ikasleak Barrian egon ziren eta primeran pasatu zuten. Gauean diskoteka eta pijama-desfilea egin zuten. 4. mailakoak Lirranskan egongo ziren 2 gau pasatzen.



5. maila
Zientzia museoan



Kurtsoa hasi eta berehala irteera dexente egin dituzte **ITURBURUKO** neska-mutilek. 5. mailakoak Donostiako Zientzia Museoan izan ziren, argazkian ikusten den bezala. 6. mailakoak Arrikruz aitzuloa ezagutzera joan dira; Arantzazuko basilikan arte modernoko hainbat lan ikusteko aukera ere izan dute.

ETXEKO ARTISTA

Etxean egindako futbolina

Materiala:

- Kartoizko kaxa
- Brotxeta-makilak
- Kortxoak
- Sare zatiak
- Kartulina
- 2 eraztun handi
- Errotuladore beltza


Pausoak:

- 1.- Moztu kaxa eta egizuz bi zulo angeluzuzen atear egiteko. Utzi kartoi apur bat atebarruko lurra egiteko.
- 2.- Kartulina berdean futbol-zelaiaren marrak margotu eta itsatsi kaxaren barnealdean. Kanpoaldea nahi duzun izenarekin eta koloreekin apaindu, eta barnealdean gradak margotu.

Ti-ta!

Lorontzi moñoñoak


Sarri gertatzen zaigu, mendian bagabiltza, loreak bildu eta bildu egiten ditugula eta ez dakigula non sartu, edo pote txukinik ez dugula. Ba hona hemen aukera polita: Kristalezko pote txiki bat eta puxika bat besterik ez duzue behar. Puxikari muturra moztu eta sartu bertan potea. Nahi duzuen koloreak erabil ditzakezue. Lorontzi moñoñoak, ezta?



3.- Estali atear sarearekin.

Jokalariak kartoian marraztu eta makiltxoez zeharkatu. Kaxaren bi aldeetan zuloak egin eta bertatik pasatu makiltxoa jokalariekin batera. Makiltxoen muturretan kortxoa sartu eta margotu itzazu aukeratu duzun taldeen koloreekin.

- 4.- Markagailua egiteko egin bi zulo kartoi zati batean eta sartu bertatik eraztunak, markagailua osatuko duten papertxoekin batera. Papertxoetan 0tik 9ra arteko zenbakiak margotu. Markagailua bi makiltxorekin lotu kaxari... eta irabaz dezala onenak!



ETXEKO SUKALDARIA

FRUTA- KIRIKIÑO




OSAGAIK

- ✓ Madariak
- ✓ Mahats-a (berdea eta beltza)
- ✓ Txotx-ak
- ✓ Fondant pasta edo txokolatina borobil txikiak

PAUSOAK

- 1.- Madaria zuritu erdikaldetik zurtoineraino.
 - 2.- Mahats txiki batzuk aukeratu eta txotxen erdialderaino sartu.
 - 3.- Mahatsa duten txotxak, zuritu gabe laga dugun madarian sartu erabat estali arte.
 - 4.-Zenbait mahats beltz tartekatu mahats berdeen artean.
 - 5.- Fondant pastarekin edo txokolatina borobilekin begiak eta sudurra ipini madariari.
- Hor duzu zure fruta-kirikiño goxogoxoa jateko prest!



AZARO ETA ABENDUKO agenda

azaroak

22

XII. TXISTORRA EGUNA

Untzaga Plazan 9:15etatik 22:00etara.
Egunean zehar kirol erakustaldia, musika,
jokoak... eta kilometro bat txistorra!
Eibarko Txirrindulari Elkartearen eskutik.

azaroak

22

TUMBA LUMBA TXOTXONGILO IKUSKIZUNA

17:00etan Coliseon.

azaroak

23

SAN ANDRES GAZTE BERTSO JAIALDIA

Portalean 18:00etan. Bertso-paper
lehiaketako sari banaketa eta "Bat-batean
munduko musikekin bertsoan" saioa.

azaroak

29

USTEKABEREKIN KALEJIRA

17:30etan Untzagatik.

azaroak

30

XXXVI. SAN ANDRES NEKAZAL AZOKA eta GANADU ERAKUSKETA

9:30etatik aurrera.

azaroak

30

NARBAIZA ETA GORROTXATEGI BERTSOLARIEN ETA JAINAGA ETA NARBAIZA TRIKITILARIEN EMANALDIA ETA JUAN BAUTISTA GISASOKA MUSIKA ESKOLAKO TRIKITILARIEN KALEJIRA.

12:00etan

azaroak

30

PLAZARA DANTZARA ERROMERIA

12:30etan KEZKA DANTZA TALDEAREN
ESKUTIK.

abendua

3

EUSKARAREN EGUNA

abendua

13-14

PIRRITX ETA PORROTX

pailazoen emanaldiak Uniko Antzokian.
Uni Kultur Elkarte eta ... eta kitto! Euskara
Elkartearen eskutik.

horoskopoa

ARIES

Ondo zaindu laguna...betirako dira eta!! Ezin
duzu berarekin hitz egin gabe jarraitu, hurbildu
eta hitz egin.

TAURUS

Zein buru gogorra zaren... lazko botak jada ez
dira zure hanketan sartzen!!! Beste batzuk ipini
beharko dituzu negu honetan.

GEMINIS

Gabonetako rifa erosi gabe oraindik... Gero
otarra nahiko duzu, ezta?

CANCER

Azaroa zure hilabetea izango da. Albiste politik
jasoko dituzu.

LEO

Zure oraingo esfortzuak gauza onak ekarriko
dizkizu etorkizunean, segi horrela!!

VIRGO

Urduri egongo zara eta lasai egotea komeni
zaizu, more koloreak lasaitasuna emango dizu.

LIBRA

Kontuz diruakin, bestela ezingo duzu erosi nahi
duzun hori!

SCORPIUS

Aspaldiko lagun batek deituko dizu, zelako
ilusioa!!! Berarekin egun pasa egiteko
gonbidatuko zaitu.

SAGITARIUS

Laster dei bat izango duzu, oparia tokatu
zaizula esaten. Zelako zortea duzun!!

CAPRICORNIUS

Aterkia zabaldu beharko, dagoen
zaparradarekin. Mela-mela helduko zara
etxera!!

ACUARIUS

Txokolatea jatea komeni zaizu, daukazun
umore ozpin horrekin... gozatu zaitzen!!!


PISCIS

Uretakoa zara eta aurrekoan piszina beste
aldera iristeko ederra komeriak. Gozokiak alde
batera utzi beharko dituzu.




NIRE AMA

Haur askok, zerbait lortzeko trikimailu bezala, amari gezur txikiak esateko joera izaten dute, baina ez dira konturatzen pertsona helduak ere txikiak izan direla. Gillenek galleta asko jan zituen eta tripa bete-bete eginda zeukan. Gainera, amak izugarrizko ogitartekoa prestatu zion...



PATZIKUREN PROBLEMAK

Pozik eta alai bizi zen Patziku aitarekin eta amarekin, Adele txikia jaio den arte: izan ere, beti negarrez, edo korroskadaka, edo titia xurgatuz ari den gauza horrek hankaz gora jarri du Patzikuren bizitza. Baina neska bat ote da Adele? Patzikuk dinosauro itxura susmagarria hartzen baitio...



POTTOKO HIPERMERKATUAN

Baserrian bizi da Pottoko, mendi artean. Auzoan, ordea, Hipermerkatu Elefante ireki dute, eta hara doa gurasoekin. Dena da berria, handia, txundigarria... Zer egingo du Pottokok hainbeste marka, produktu eta gauza artean? Bada, besteak beste, abentura barregarriak bizi, eta baita beldurgarriak ere!



AITATEGIA


Jaime haserre dago aitarekin: beti dabil presaka eta dena ahazten zaio. Bere lagun Elenak Aitategi bat non dagoen kontatuko dio, eta han maileguan atera ditzakeela nahi dituen aita guztiak. Jaimek Aita antolatzailea probatuko du, eta Aita Azkarra eta Aita Atsegina... Aurkituko ote du Jaimek berak nahi bezalako aita?



BAKARRIK ETA BUZTAN GABE

Udako oporrak dira, eta afrikar askoren auto eta furgoneta pila Iparretik Hegora doa. Furgoneta horietako bat gasolindegian geratu da depositua betetzeko. Baina furgonetakoak joan direnean, neskaila bat utzi dute ahantzirik....

Gero, auto bat gelditu da, eta autokoak abiatu direnean, katu bat utzi dute: abandonaturik...



SIMON IPUINEN MUNDUAN

Zoritxarrekoa sentitzen da Simon, gurasoek ez diote jaramonik egiten, eta eskolakideek ere ez (Maidar kenduta). Horregaitik eroriko da egun batez Ipuinen Mundura: han bizi dira... Txanogorritxo, Peter Pan, Lamiak, Merlin, Aladino... eta haien artean, ipuin batetik bestera mugituz, bera bezala bizidunen mundutik joandako haur "zorigabeak".

bitxikeriak



Leonardo Da Vinci gai zen aldi berean esku batekin margotzeko eta bestearekin idazteko.



Barre egitea oso onuragarria da memoria hobetzeko.



Eskimalek hozgailua jakiak ez kongelatzeko erabiltzen dute.

Izurdea animalien artean memoriarik onena duena da eta gizakiaren ostean argiena ere bada.

Txindurriak animaliarik indartsuena da, 20 bider bere gorputzaren pisua jasotzeko gai baita.

Zebrekin dituzten marrek sabanan kamuflatzen laguntzeaz gain, euliak uxatzeko ere balio dute.

Mickey Mousek 86 urte ditu. 1928an Walt Disney marrazkilaria eskutik sortutako marrazki biziduna da.

Gizakiok lotan gaudela ere ikasi egiten dugu. Izan ere, egunean zehar ikasi edo bisitakoa burmuinean modu egokian "gordetzen" laguntzen du.

Supermerkatuetako erosketak karroetako heldulekua komun publikoak baino zikinago dago.

Gizakiok 130.000 ile inguru ditugu buruan. Ilegorriek 90.000, beltzaranek 130.000 eta ile horidunek 150.000.

Marrazoek ez dituzte koloreak desberdintzen, baina usaimen bikaina dute.

TXOTXONGILOAK

Orain dela asko, eta gaur egun ere, hau gertatzen da. Tolosako Topic museoak sekretu handi handi bat du.

Bada, begira: Joxepe izeneko mutil bat Topic Museoa gauez zaintzeko kontratatu zuten. Joxepe elkarrizketan zegoenean, museoaren zuzendariak esan zion gauez oso gauza arraroak gertatzen zirela, baina Joxeppek ez zuen ondorengoa espero.

Gaua zen eta Joxeperen lehenengo eguna zen museoan. Bederatzietan sartzen zen eta bederatzi 1/2 erdietan hau gertatu zitzaion: Sarreran zegoen txotxongiloa hitz egiten hasi zitzaion; beldurtuta goiko pisura igo zen eta igo zenean txotxongilo guztiak hizketan eta jolasean zeuden. Txotxongilo batek esan zion Joxeperi: Aizu, zu zein zara? Eta, zer egiten duzu hemen? Ahhhh, zu beste zaintzaile bat zara, ezta? Ba tira, hemen ez dugu beste zaintzailerik behar, nagusiak gara-eta!



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



Orduan, txotxongilo guztiak Joxepe hartu eta kaxa batean sartu zuten. Sorginkeria hori zortzi 1/2 erdietan amaitzen zen; eguzkiak museoan jotzen duenean txotxongilo guztiak beren tokietan sartzen dira, eta geldirik geratzen dira.

Joxepe zortzi 1/2 erdietan kaxatik irten eta museotik korrika kalera joan zen, eta orduz geroztik ez da gehiago museora bueltatu. Hori da kasu bat, baina zaintzaile guztiak bukatzen dute horrela.

Gaur egun museo oso ezaguna da, baina inork ez daki sekretua. Museotik pasa diren zaintzaileek dakite bakarrik.

Melissa Loor eta Ainhoa Bilbatua

JOALDUNAK



zu margolari!

